

BALOREZKO PROPOSAMENA

Atal honetan guk identifikatutako arazoari aurre egiteko eskainiko dugun produktu eta zerbitzua azalduko dugu, zehatz mehatz eta xehetasun guztiak kontuan izanik.

Hasteko, aurkezpenean esan dugun bezala, gure ideia, duxan jarriko den eta horrela ura aurrezten lagunduko digun pantaila bat da, non zenbat ur litro kontsumitzen ari garen etengabe azalduko diguna.

Idea ez da guztiz berria, dagoeneko beste enpresa batzuei bururatu zaie. Baina enpresa horiek merkaturatu duten produktuak soilik ur-kantitatea kontatzen du. Gureak, ordea, horrez gain, beste aplikazio batzuk izango ditu eskuragarri: Spotify, Netflix eta Youtube, besteak beste. Gainera, ur-kontsumoa gure aplikazioan erregistratuko da dagokion profilean. Zerbitzu guzti hauek produktu bakar batean eskaintzen eta merkatura ateratzen lehenak izango ginateke. Horregatik, merkaturako ateak guztiz irekiko zaizkigu produktu berritzaile honen bidez.

Produktuaren funtzionamenduari erreparatuz, ur-kantitatea detektatzeko, duxako hustubidean sentsore bat ezarriko dugu, eta bertan jasotako informazioa pantailara bidaliko da *bluetooth* bidez. Sentsorea oso txikia da. Hori dela eta, ez da arazorik egongo hustubidearekin sentsorea ezarri ondoren. Sentsorea ura detektatzen duen momentuan hasiko da informazioa pantailara bidaltzen, ur-kantitatea zenbatekoa den adieraziz. Guk aplikazioa programatuko dugu informazio hori dagokion pertsonaren profilean gordetzeko.

Pantaila hau, Samsung Galaxy Tab A9-a da. Pantailaren neurria 11" da, zabalera 25,43cm-koa da, 0,59cm-ko loditasuna du eta altueraz 16,58cm ditu. Horrela izatea erabaki dugu, edozein duxatan jartzeko erraza izan dadin. Lortu nahi dugun helburuari helduz, prezio eta kalitate aldetik egokiena da. Gure produktuaren kolorea beltza izango da, edozein duxarekin konbinatzeko egokiena baita.



Pantaila internetera, etxeko wifira, konektatuta egongo da. Play Store aplikazioa eskuragarri edukiko du, nahi duzun aplikazioa deskargatu ahal izateko: hala nola Spotify, Youtube, Netflix... Horrez gain, gure aplikazio propioa deskargatu beharko da, gure zerbitzuarekin bezeroak duen beharra asetzeko. Aplikazioak LAMI izena izango du. Bertan, etxeko bakoitzak bere profila izango du. Horrela, bakoitzaren datuak bertan gorde ahalko dira. Datu guztiak erregistratuta geratuko dira.

Horretarako, etxeko bakoitzak bere profila aktibatu beharko du dutxatzen hasi baino lehen aplikazioak funtzionatu dezan. Aplikazioa programatuko dugu adierazteko ea gastatutako ur-kantitatea egokia den. Bestela, etxeko pertsona horri aplikazioak jakinaraziko dio ur-kantitate gutxiago erabili beharko lukeela kontsumo egoki bat edukitzeko.

Pantailak euskarri bat edukiko du, eta hori paretan ezarri ahal izateko torlojuak jarriko dira. Horrela, tableta jarri eta kendu ahalko da. Pantailak bateria izango du; horregatik, kargatu egin beharko da. Hau uraz babestu ahal izateko, zorro bat etorriko da tabletarekin batera.

Tabletaren alde batean bozgorailuak egongo dira, urari erresistentzia diotenak. Tableta zorro baten barruan egongo denez, ez da arazorik egongo, baina badaezpada bozgorailuak horrelakoak izatea erabaki dugu.

Produktuaren muntaketari dagokionez, ez du zailtasun handirik. Hori dela eta, ez dugu muntaketarik eskainiko. Hala ere, muntaketa errazteko, produktuak bere jarraibideak izango ditu, pausoz pauso nola ezartzen den adierazten dituztenak. IKEAren bidez erostean soilik eskainiko da muntaketa.

Pantaila haustekotan, konpondu edo aldatu egingo da, dohainik, baldin eta urte bateko epea errespetatzen bada. Bestela, nahi izanez gero, beste pantaila bat erosi beharko da. Pantailarekin ohiko arazoak (funtzionatzeari uztea, aplikazioan errore bat...) edukiz gero, ez dugu zuzenean konponketa eskaintzen, baina gure webgunean zerbitzu berezi bat izango dugu, non produktua konpontzeko bideoak txertatuko ditugun. Arazoa larriagoa bada, galdetegi bat bete beharko da, gurekin harremanetan jarri eta pantaila konpondu ahal izateko.